

# Bakea eta gerra euskal haurren gogoetan

**Jokin Apalategi**  
EHUko irakaslea

Hautzaroa, zurian eta inprimatzeko prestatzen den orrialdearen irudiarekin aurkeztuko nuke. Horregatik, hezkuntza proiektu berritzaileen promotoreek haurretan pentsatu izan dute betidanik beren utopiari erroak emateko orduan. Erakundeen iraupena atzematen dutenek beste hainbat. Giza eta gizarte jakintzek orrialde zurian lehen inprimaketak bizitza osorako uzten duen grinazko joera kontutan izanik guzi hori nola egokitzen den aztertu izan digute. Horrela gogoratzen ditugu garapen psikologiak, gizarte psikologiak, pedagogiak eta ezagutzaren soziologiak kontzeptuen formakera ezagutu nahirik egindako eginahalak eta ondoriozuriko aldien, prozesuen eta lorpenen legeak. Areago ere jakin nahi izan dugu bakea eta gerra kontzeptu sozialak eta moralak euskal gizartearen sare edukatibo eta irakaskuntza eredu desberdinetan barreiatu ikasten duten haurretan nola errotzen diren neurtzean.

I regard childhood as a blank page ready to be printed on. For that reason, promoters of innovative educational projects have always considered children when establishing their utopia, as do those researching the continuity of organisations. Taking into account the emotional tendency resulting from early experiences, human and social sciences have analyzed their general consequences; and it is in this context that we must set the efforts by developmental psychology, social psychology, pedagogy, and sociology of knowledge to understand concept formation, as well as the conclusions concerning the stage, process and achievement laws. We tried to go even further, analyzing how the social and moral concepts of peace and war are rooted in children studying in different educational models spread all around the Basque Country.

Bake eta gerra irudiak nola formatuaz itsasten diren gaurko euskal haurren gogoetan jakin gura izan dut. Egindako saioaren ondorio soegiaztatutakotik ateratako lagin baten berri ematera natorkizue lantxo honen bidez. Eguneroko bizitzak noiznahi eta nonahi ohi dituen liskar-zipriztinetatik hasi eta gizarte globalaren egituretara arte, mailaz maila, bortxa fisiko eta morala sort daitekeela pertsonok parte hartzen dugun edozer alorretan, ezbairik ez baitago. Areago, zenbait alditan, orain aldian gurean bezala, salbuespen-egoera normalizatuak formatzen direlarik gizartean, bortxa fisiko eta moralaren produkzioa diskurtso politiko zilegituan (hauteskunde-emaizten erreferentzian) gordeaz baimenduriko praktika bilaka daiteke. Badirudi bakea lortzeko nahiaezko dela gerra fisiko edo morala eragitea. Horrela, diskurtso bakezaleena bera ere gerraria izan daiteke. Zer besterik gertatzen baita norbaitek bere baloreen itzalean kokaturik bere auzoa kondenatzen duen bakoitzean? Zeren edo zeinen izenean kondenatzen da? Ba al dago balore orokorrik? Esan nahi baita gaur egun euskal gizartea osatzen dutenek unanimitatez onarturiko balore zurririk, norabide araturik? Egoera hori lortzen ez den bitartean norberaren balore-ikuspegia balore unibertsalena dela interpretatuaz egindako erasoak gerra-erasoak besterik ez dira izango. Unibertsal absoluturik ez baitago. Kontzeptu baten onarpena unibertsaltzat jo daitekeenean ere bere aldian aldiko egokiera desberdina izango baita unanimitatezko eraikuntza batean kokatuaz ororen enbor finakoaren gain altxatzen ez dugun hainbatean.

Gure familietan, parlamentuan, mass-medietan, hezkuntza-zentroetan, elizetan, negozioetan, lantegietan, karriketan, alderdietan, sindikatuetan, jolasetan, eguneroko harreman arruntetan eragiten dena ez al dator irainez, iruzurrez, desafioz, gezurrez, lapurretarako eta esplotaziorako abileziaz josita, horrela hautemana ez dadin neurri estetikoaz apaindurik zerbitzatzen bada ere? Bizitzaren filosofia eta bizitzeko dugun sistema ez al datoz bada, lorpena, arrakasta, boterea, indibidualismoa eta kontsumismoa goraiatzera? Ez al ditugu egoistaki gutziagarri direnen lortzaileak itsuki adoratzen? Guziaren gainetik eta besterik gabe, lortzen dena handia eta ospetsua den ala ez dugu mira-puntuaren balore nagusi. Horri ez diogu lortzaileak egindako norabidea nolakoa izan den jakiteko galbaherik aplikatzen. Zer da pentsakera hori, inmoralitate orokorrarena ez bada? Oihaneko legearen jarraitzaileak gara, publikoan bere kondena eszenifikatzen badugu ere. Azken funtsean, bizitza bikoizten ez al da erakusten, publikoan kondenatzen dena, ixilean praktikatzen, alegia.

Haurrek, guk gura ala ez gura izan, sakon-sakonean eureganatzen dute inozentzia gainditu ahala hori guztia. Giza eta gizarte-jakintzek eginkizun horretan prozesuak,aldiak eta lorpenak daudela erakutsi digute. Hala, gai jorratuak dira kontzeptuen lorpena haurren bilakaeran, ezagutza soziala, printzipio moralak, egituren errepresentatibitate mailak, ezagutza metatzailea, arauen eraikuntza eta iraupena, eta abar. Halaber, horren osagarri diren logika, zenbakiak, espazioa eta denboraren konprenzioak aipa genitzake.

## **1. Ezagutza teorikoak**

Argi eta garbi dago pertsona helduek ez bezalako mentalitatea daukatela haurrek beren haurtzaroan. Desberdina egituren bezala funtzionamenduan. Mentalitate hori nola harremanak hala kategorizazioak egitekoan benetako logika

baten faltak, errealitatea objektibizatzeko orduan zailtasunak izateak eta arau moralak eskas edukitzeak karakterizatzen dute. Zazpi-zortzi urte arte haurra prelogikoa, prekausala eta premorala dela ondorioztatzen dute ikerketek. Esan nahi baita, haurraren mugimendu oro pentsamendu egoistaz gidatuta aritzen dela. Hizkuntzari dagokionez, haurrak benetan komunikatzeko asmorik gabe hitz egiten du. Bestea influentziaztea edo informazioz janztea ez da bere kalkuluetan sartzen. Errepikapenez, monologoz eta beste pertsonen konprenitua izateko axolarik gabe jarduten da haurra.

Baina, gure galdera da noiz eta nola pentsakera egoera horretatik irteten den pertsona eta pertsonartea? Areago, betirako irteten al da? J. Piageten (1928) aburuan gizarte primitiboak, esan nahi baita, gizarte horietako pertsona helduak, beren errepresentazio kolektiboen eragin dominatzailea zela medio, ez ziren haur-pentsakera horretatik irteten. Aldiz, gure gizarteetan, banako askatasunean zutitutakoetan, pertsona helduok, harreman interindibidualei esker, pentsamendua geure egozentrismotik atereaz kooperazio-egoerara igaroko gineteke. Besteren portaerak aldatzeko helburuarekin konpromisoak ehotzera igarotzen gara. Izan liteke informazioa emanaz, kritikak bideratuaz, aginduak luzatuaz, edo eta galdera-arrapostuak eginaz.

Bi mentalitate-mota horiek horrela definiturik, egia da bi portaera-tipo ideal diseinatuaz, bi mundu ahale berri zehatz-mehatz islatu dugula. Baina, banako askatasunaren gainean zutitutako gizarteetan beti kooperazio-sistemetan bizi garela ziurta al dezakegu? Gure gizarteetan ahots-eramaile diren erakundeak, alderdiak, sindikatuak, borondatezko elkarteak, eta abar bere erretolika propioan jarduten direla besteren konprenioa edo harremana bilatzeko ardurarik gabe ez al dugu konstatatzen? Eta hori errepresentazio kolektibo anitzeko gizarte baten eredu ez al da? Beste hitz batzuekin adierazita, banakoaren askatasunaren gainean zutitutako gizarteetan errepresentazio kolektibo partzialez osatutako pentsamendu egozentrismoen pluralitatea sumatzen dugu. Orduan, banakoaren askatasunaren gizarteetan ez gara kooperazio egoerara ailegatzen beti. Gaurko Euskal Herrian daukagun monologoaren kakofonia ez ote da horren lekuko? Zenbateraino gure haurretan ez dugu aurkituko hori bera?

### **1.1. Kontzeptuaren lorpena**

Ezagutu nahi duguna, lehenik eta behin, kontzeptuaren alorrekoa izanik, "Bakea eta Gerra", alegia, kontzeptuaren formazioari buruz giza- eta gizarte-jakintzetan dakiguna aipatuko dugu.

J. Piagetek bere lehen lanetatik (1924) garbi utziko du haurraren baitan errealitate simple eta unibertsalenei buruzko usteak ezagutzazko elaborazioak direla eta inolaz ere ez inpresio sensorialen produktuak. Inteligentzia sensorimotrizari buruzko testu batean (1931) "erreflexio" terminoa kontzientzia hartzearen sinonimotzat ematen du. Eta garapenaren ibilbidea agertzekoan, pentsamendu logikorako pasarte haurrak bere aktibitate intelektual propioekiko koherentziaz duen kontzientzia hartzean datzala azalduko du. Hautemate sensorialez gidatzen utziko bagenu, tamainuaren jarraipena edo objektuaren iraunkortasuna onartu gabe, mundua amesgaizto bat litzateke.

Hona arteko J. Piageten inbariante eta kontserbazioak kontzeptualizazioaren forma sinpleenak dira. Bere forma konplexuagoan Bruner, Goodnow eta Austinen (1956) funtzio-deskribapena daukagu: ingurunearen konplexutasuna murriztu; munduan aurkitzen ditugun objektuak identifikatu; apendizko iraunkor baten beharra urritu; aktibitate instrumentalari norabide bat eskaini; gertakizunen kategoriak ordenatuaz harremanetan jarri.

Gainera “tabula rasa”ren larrialdia ekiditeaz gain, iraupenerako garrantzizko diren bi funtzio betetzen dituzte kontzeptuek: organizazioa eskaintzea eta iragarpena erraztea. Funtzio horiek “eredu mentalak”, “jokalekuak” edo egoerei aurre egiteko “teoria” inplizitu eta esplizituak ukaitea baimentzen digute.

Bestalde, esan behar da kontzeptuek bereizgarrien serie batez osatu ohi direla, zeinetarik bat bere definizio propioa litzatekeen: kontzeptuak bere baitan erreferentzia (izendatzen dituen munduko gertakizunak eta objektuak lirateke) eta zentzua (gaineratiko kontzeptuekin duen harremanean datza) batzen baititu. Hori bera beste molde batzuetan ere adierazi izan da: adibidez, kontzeptua “behetik” (bere atribuetatik) edo “goitik” (teoriaren beste elementu batzuekin harremantzetik) defini daitekeela esan da.

Kontzeptuek barne-egitura bat daukate, ikuspegi desberdinetatik esplikatekeena, hain zuzen. Molde klasikoan: kontzeptua beharrezko eta nahiko diren atributuaren seriez eraikia legoke. Molde probabilistikoan: kontzeptuek egitura gandutsua lukete, beharrezko eta nahiko diren atributurik ezean. Gaur egun, azken ikuspegi hori da nagusiki onartzen psikologian. Nahiz eta ikuspegi probabilistikoaren aldeko erakarpenik hoberena L. Wittgensteinek (1987) egin zuen. Honen esanetan, kontzeptu baten barrenean izaki ale desberdinak batu ahal izatea euren arteko antzekotasun familiarrari zor zaio.

Idea hori bereganatuaz E. Roschek (1978) prototipoaren teoria gauzatu zuen: objektu desberdinen artean kategoria hobekien errepresentatzen duenari ematen zaion izendapena da. E. Roscheren esanetan mundu-hautemana ez dago euren artean zerikusi gabeko diren atributu edo bereizgarriez eraikia, baizik eta hiru printzipioren arabera egituraturik: atributuak ez direla bakoitza bere aldetik joaten da horietarik lehena; abstrakzioaren mailen existentzia harrapatzen duela egituraketa horrek da bigarrena; baina, egituraketa korrelazionala perfektua ez izanik, prototipoen forman gauzaten diren errepresentazioarekin osatzen dela da hirugarrena.

Printzipio horiek kontuan kontzeptuen baitan egitura bertikal supraordenatua (altzaria) eta oinarrizkoa (aulki tolesgarria) alde batetik, eta horizontala (izaki ale gutxiago ala gehiago prototipikoak) bestetik bereizi behar dira. E. Roschek dimentsio horizontalari dagokionez, tipizitatearen efektuen existentzia erakusten du, baina, egia da, hala ere, izaki ale guzietan ez dutela kategoria berdinean ordezkatzeko.

Teoria probabilistikoaren barrenean bi bariante daude: bata, prototipoarena, zeinen adierazpenean kontzeptuek errepresentazio elkarkoi bat luketen, erreala bezala ideala izan daitekeena; bestea, ereduarena, kategoriaren bereizgarri arruntenak daramatzen izaki aleak ordezkatzeko luke.

J. Piagetek bere pentsamendu-egituratik antzeko bereizketak proposatu zizkigula gogoratuko dugu puntu honen amaieran. *Introduction à l'épistémologie génétique* (1950) obran jada klarki banandu zituen abstrakzio empirikoa alde batetik, hots, errealitatek informazioak ateratzen dituen, eta, bestetik, abstrakzio gogoetazailea (réfléchissante), hots, subjektuen ekintzen koordinazioetatik eraikitzen dena. Eta 1977ko beste bi obratan abstrakzio gogoetazailean bariantek izendatzen dizkigu: hain zuzen, abstrakzio gogoetazaileak bitan banatzen baititu, abstrakzio pseudo-enpirikoan eta abstrakzio gogoetatuan.

## 1.2. Ikerketaren emaitzak

Haurren kategorizazioetan ezagutzaren errepresentazioari dagokionez mailak daudela erakutsi digute. W. Preyer (1882) lehenik, eta J.M. Baldwin (1894) ondotik izan ziren garapen mentala aldi edo estadio serie batzuetatik igarotzen zela eboluzioaren biologiazko ikuspegian oinarrituta adierazi ziguten lehen psikologoak. Hogeigarren mendean, Binet eta Simonek (1905), Sternek (1907), Bühlerek (1918) eta Freudek (1915) haurren garapena alditan zatikatu ziguten. J. Piaget, bere aldetik, Janetek (1919 eta 1921) Sorbonan emandako kurtsoen eta 1926an argitaraturiko *Les stades de l'évolution psychologique* obraren eraginaz kutsatuta zatiketa-ikuspegiak bila abiatu zen.

Bere obraren lehen aroan (1920-1935), bi aldi bereiztu zituen haurren garapenean: zazpi urte artekoa pentsamendu prelogiko eta prekausalarena deitua, eta hortik aitzinakoa pentsamendu logiko, mugikor eta sozializatua bezala aipatua. Bigarren aroko ikerketaren ikasketetan, hots, ezagutza sentsorial-motrizaren garapenaz ari denetan, beste aldi bat eraikitzen du, aldi berean berau sei azpialditan bananduaz. Azken funtsean, hiru alditara bil daiteke oraingo plangintza: erreflexuak, usadioak eta ekintza inteligentea ataletara, alegia. Hala ere, hirugarren aroan hartuko du esanahi definitiboa aldien zatiketak, talde-portaerak aztertzean aldien nozioa egiturazko irizpide bihurtuko baitu. Pentsamendu formalaren aldia, hastapenean eduki berbalez betea (1945/5), egiturazko definizio espezifikokoa izatera igaroko da 1949an plano teorikoan eta 1955ean nerabeen portaerak deskribatzeko erabiliko du.

Geroztik, aitz erabilia izan da aldien zatiketa haurren kategorizazio-lorpenen azterketa deskribatzekoan. Elkindek (1969) haurren ezagutzaren errepresentazioan hiru plano progresibo daudela aipatu du:

- Lehen plano, 6-8 urte artean kokatzen dena, hauteman-kointzidentzien arabera objektuen kategorizazioa egiteak definituko luke: kolorea, forma, tamaina eta posizioa konbinatuaz, alegia.
- Bigarren plano, 8-10 urte artean dagoena, irizpide funtzionalen (objektuei berdina zaien funtzioa aurkituaz) arabera kategorizatzeak definituko lukeena.
- Hirugarren plano, 11 urtetik aitzina legokeena, abstraktuen edo goi-kontzeptuen arabera kategorizatzeak karakterizatuko luke.

### 1.3. Sozialaren ezagutza

Mundu sozialari buruzko ezagutzak zailtasun bereziak dauzka. Alde batetik, sozialaren alorra zabala eta askotarikoa delako. Bere atal baitira, besteak beste, normak, errolak, baloreak, sistema ekonomiko, kultural, sozial eta politikoak eta abar. Eta horietaz guziez zuzeneko esperientzia edukitzea ezinezkoa da. Areago konplikatzen da ezagutza egin behar duena haurra denean. Mundu hori parte handi batean moldatua jasotzen baitu haurrak hala ere, beti irekia da bakoitzak asimilazio- eta akomodazio-prozesuen bidez bere errepresentazioekin integra dezan. Bakarrik, haurrari heltzen zaizkion informazioak berarentzat bereziki prestatuak ez daudenez, zatika eta partzialki dastatzen ditu, eta hori bi iturritatik:

- inguruneko interakzio sozialetatik
- komunikabideetatik.

Luzaz, sozializazioaren ikertzaileek, haur txikien kasuan, lehenetsua eman diete sozialki eta emozionalki adierazpen argia daukaten testuinguruak (fami-liarena guzien ginetik) ikasteari. Dunnek (1984) horrela izan dadin nahitaezko dela dio, zeren bestela: 1) haurrek besteei buruz duten konprensioa infrabaloratu-tuko baitugu; 2) eta amatasun-estiloaren arabera haurren sentsibilitate sozial erne berrian dauden banako diferentziak galduko ditugu. Dunnerentzat argi baitago haurrak, pertsona adierazgarrien unibertsoan inegratuta egonez, euren emozioak eta intentzioak konprenitzen dituela, sotiltasun handienez erantzunaz, hots, familia eta senitartekoen prozesuetan mugitzen dela adin txikian. Berdinen arteko harremanak soegiaztatzen direlarik, aurrekoaren garrantzia eta esanahia areagotua besterik ez da gertatzen. Montagner et Kol-ek (1984) zera deskubritu zuten: estres edo sozial egoera berezietan, amatasunaren portaera-aldaketek haurrarekiko portaera diskordante bati toki ematen diotela, eta, aldi berean, haurraren portaeraren moldean eragina dutela. Mugny eta Doise (1978, 1979) psikologo sozialek ere interakzio sozialean faktore kritikoa ez dela imitazioarena argitu digute, baizik arazo berari buruz eman daitezkeen ikuspegi kontrajarrietatik sortzen den gatazka soziokognitiboaren aurrean erabakiak hartu beharra. Horrela erakutsia izan da haurrek, interakzio sozialaren bidez, nahiz eurek baino eskasago direnekin eman, beti onura lortzen dutela.

Anitez gutxiago ikertu dena haurrengan komunikabideek duten eragina da. Gaur egun, hala ere, hutsune hori betetzen hasi da. Berriki, J. Urrak, M. Clementek eta M.A. Vidalek (2000) telebistak haurrengan duen eragina distiratsu azpimarratu dute. Haurrak ikus-entzunezkoen eta telebistaren kulturen murgildurik daudela frogatzen zaigu, horrek kultur eta gizarte-usadioetan adierazten duen aldaketarekin. Gainera, lehen mailako informazio-iturri dela telebista haurrentzat jasotzen da. Eta bortxaren munduak telebistan duen pisua ezagutzen dugularik, haurrengan desmasiak dakartzala ageri da. Haurren portaera erasokorrak telebistan bortxazko programak ikustearekin eduki dezakeen harremana ikertzen ari da. Paik eta Comstockek (1994) telebistan bortxaren eta portaera antisozialen lotura aztertzen zuten; 217 ikerketa-saioren inguruko ikasketa meta-analitikoan telebistaren eragina portaeran baieztatzeraz ailegatzen dira. Eta ohar batzuk egiten dituzte: bata, mutikoak neskatoak baino influentziagarriago liratekeela telebistaren bortxaz; biga, adinak garrantzi handia duela aditasun-mailarekin; higa, familiako komunikazio-

-maila funtsezko dela. A. Blancok (2000) gai hau hausnartu ondoren zera proposatzen du: «Partiendo de todas estas consideraciones que tienen como marco de referencia la mediación, cabría la posibilidad de avanzar un modelo en el que quedaran incluidas algunas de las variables contempladas en páginas previas partiendo de la necesaria distinción entre características del contexto socio-cultural, mediación micro-social y elaboración personal».

#### **1.4. Arau eta printzipio moralen ikasketa**

Gisa anitzeko arauak daude. Hasteko, arau informalen saila biziki zabala da. Argyle, Henderson eta Furnhamek (1985) edozein harremani aplika dakizkiokkeen 33 arau izendatu zituzten, eta horietariko 22rentzat beste 12 arau bakoitzeko. Gainera, legeek araututako harreman profesionalak alde batetik, eta lan-hitzarmen arautuak bestetik berezi behar dira. Hala ere, arau batzuk oso orokorrak agertzen dira eta harreman-mota guzietara zabal daitezke, adibidez, “bestearen bizitza pribatua errespetatzearen aldekoa”, edo “konfidentziak gordetzearen aldekoa”. Aski konplikatu eta zaila da, bada, arauen mundu horri portaera mailan neurria hartzea.

Hurrei dagokienez, J. Piagetek (1932) aruari buruzko kontzientzia hartzea hiru alditan garatzen dela erakutsi zuen. Sei urte arte ez legoke bortxazko araurik. Sei urtetik aitzinera araua aldatu ezinezko eta sagaratu bezala hartzen da. Eta hamaika urte ingurutik konbentzionaltzat ikusten hasten da, elkarren kontsentimenduan eraikia eta kontsentsuz aldagarria.

Bestalde, aldrebeskeria, lapurreta eta gezurrari buruzko juzkuak ikasten dira. Haur txikiengan “errealismo moralerako” joera ageri da, hots, intentzioak ez ezik emaitza objektiboak juzkatzen dituzte. Sentimendu hoberenez motibatuta egindako aldrebeskeria grabe bat gaitzesgarriagoa zaie intentziaz eragindako kalte arin bat baino.

Haurren baitan bi moralek koexisti dezakete garapenean jarraikiaz. Batetik moral heteronoma dago, kanpotik datozen arauen errespetuan altxatzen dena eta bortxa-tipoko harreman interindibidualen bidez inposatzen dena. Eta bestetik, zazpi-zortzi urtetan agertzen den moral autonomoa dago, arau idealen kontzientzian zutitua eta kooperazioko harreman interindibidualetan jezarria.

Nola ikasi eta mantentzen diren arauak? Ikerketek diote gainerako ikasgo sozialak bezala portaerazko usadioen lorpenez egiten dela. Hurrek aginduak eta debekuak sozializazio-agenteen zentzabide ekintzen (sariak, zigorrak...) emaitza gisa barneratzen dituztela, alegia. Arauen onarpenean aspektu naturalak eta lortuak daudela adieraziko digute ere.

#### **1.5. Ezagutza akomodatiboa**

Harreman interkulturalerantz egina dagoen ingurunean garrantzi handieneko prozesua da akomodazioarena. Euskal gizartea errealismoz definitu nahi bada, lehenik eta behin, interkulturala dela esan behar litzateke. Hizkuntza eta kultura bizi desberdinez saretua dagoela, alegia. Horrelakoetan komunikazioa arazo bihurtzen da. Zein hizkuntzatan jardun behar da? Komunikazio interkultural baten orduan hiru aukera-joera eman litezke: 1) Pertsona batek hauta dezake bere

mintzakidearen hizkuntza erabiltzea (hizkuntza-konbergentzia egiten da); 2) baina bere hizkuntza propioan elkartrukea egitea ere erabaki dezake (hizkuntzaren mantenimendua dago); ala eta berak egiten duen hizkuntzaren eta besteak egiten duenaren arteko diferentzia azentua dezake (hizkuntza-dibergentzia probokatzen da).

Aukera horiek aztertzean ikertzaileek hizkuntza-konpetentziaz aparte, hainbat faktore psikologiko eta sozial azpimarratzen dute. Konbergentzia egin daiteke komunikazioaren efikazia hobetzeko, baina, baita ere, kontzienteki ala inkontzienteki behar bat sentitzen delako, sozialki integratzekoa edo mintzakidearekin identifikatzekoa, alegia (Clément eta Noël, 1994). Aitzitik, hizkuntza-mantenimendua edo -dibergentzia anitzetan erabilia da pertsona batek bere mintzakidearekiko sentimendu ukapenezkoak dituelako edo bere identitate soziala baieztatzeko aukera delako. Estrategia horiek tokian tokiko arau sozialen eta testuinguru soziopolitikoaren kutsadura eduki dezakete, gainera.

Horrelakoetan gehiengoaren hizkuntzaren jabe direnek gutxiengoaren asimilazioa egiten saiatzeko joera dute. Eta prozesu hori aurrera eramateko, lagun ohi diren diru eta boterearen armez baliatzen dira. Gainera, gutxiengoaren hizkuntzaren jabe direnek identitate sozial kontziente bat ez badute, efektibo bihurtuko da. Baina, identitate sozial hori kontzienteki gordetzeko aukera egin badute, gutxiengoaren hizkuntzaren jabe direnek akomodazioarekin erantzungo dute. Horrela, ezagutzaren alorrean aurrerapen-prozesu bilakatzen da akomodazioa. Aldiz, asimilazioa sistemaren kontserbazioan erortzen da.

Gatazka erreal eta zehatz bat gauzatzen da. Irtenbidearen jarreraz zer dakigu? Harreman interkulturaletan jakitun direnen hipotesian, talde sozial desberdinduen arteko harremana egokituko bada talde arteko jarrera ukatzaileak bazterretik etorri behar du. Baina, jarrera ukatzaile hori hizkuntza-konpetentzien baitan badago, nola egin bakoitza bestearen hizkuntzaz jabetuaz ez bada? Guimond eta Palmerek (1993) luzerako moldean endotaldearen aldeko soslaiaren denboraren ibilian ikastean zera nabarmendu zuten: Kanadan frantsesez konpetente ziren anglofonoek komunitate frankofonoarekin harremanduala endotaldearen aldeko soslaiaren gutxitzen zutela.

J. Piagetek (1932) dio, «akomodazioaren aurrerapena asimilazioari koerlatibo zaio: eskemen koordinazioak subjektua errealaren dibertsitatara eramaten duen neurrian, akomodazioak eskemak diferentziatuko dituela, eta ez hala akomodaziorako berehalako joera baten bertutez».

## **1.6. Ondorio teorikoa**

Guk soegiazatzeko gai dugun bakea eta gerra inplikazio-sare handiko objektua dela argi dago. Areago, haurren munduan gai horrek eduki dezakeen dimentsio konplexua salbuespen-egoera eta gehigarri diren ezohizko kondizio bilakatzen denean. Kontzeptuen munduan kokatu gara horien lorpena haurrek nola garatzen duten jakiteko. Hasteko dakiguna da bakea eta gerra ez direla edozein motatako kontzeptuak. Batere ez dela zenbakiak, denbora, espazioa eta abar kontzeptuen gisako konprentzioa, nahiz azken horiek ere kontzeptuak izan. Horiek eta haiek bereganatzeko orduan, haurra konkretutik abstraktura igarotzeko



ahalmena adinaren garabidean aldizka eta piskaka gauzatzen doa. Baina, bakea eta gerra kontzeptuetan, abstrakzio enpirikoaz gain, anitzez zailago den subjektuen ekintzen koordinazioak eskatzen duen abstrakzio gogoetatua beharrezko da. Hori guztia hiru lorpen-handitan bananduta deskribatzen diguten hainbat ikerketaren emaitza daukagu.

Orokorki, kontzeptuen lorpena eginbehar neketsua eta arduratsua gertatzen bada haurrarentzat, mundu sozialaren ekarpena hain hurbiletik jasotzen duen bakea eta gerra bezalako kontzeptuena zer esanik ez konplikatua dela. Bereziki besteren esperientzian fidatuaz eta haren transmisioaren arabera bereganatu behar denean. Ezin baitugu ahantzi mundu sozialeko izakiak hautazko eta trukakor izanik arbitrarioki ala kontsentsualki eraikiak izan daitezkeela, eta hori arazo-iturria dela.

Interakzio sozialaren presentzia erabakigarria bezain arazotsua gertatzen da. Batzuetan haurrak, emozio eta intenzioen bidez konprensioa gauzatuaz familia eta senitarte prozesuetan mugitzen denean; besteetan, aldiz, ikuspegi eta portaera kontrajarrietatik sortzen diren gatazka kognitiboekin aurkitzen baita erabakiak landu beharrean.

Gaur egun ardura berezia eskatzen dio ikertzaile sozialari haurrengan komunikabideek duten eragina ezagutzeak mundu sozialeko gaiekin aurkitzen denean. Bakea eta gerra ikuspegiak haurrengan nola garatzen diren jakiteko orduan, komunikabideen eragina adierazgarria izan behar dela baiteritzogu. Batetik telebistan bortxaren kontsumoa ardatzeko delako eta, bestetik,aldi berean moralismo autoritario eta hipokrita batek bortxaren aker garbitzaileak izendatuaz eskrupulurik gabe gizarteko izaki konkretuetan haragiartzen dituelako.

Arau moralen formazioa usadioetako anbiguetatearekin nahasturik aurkitzen da. Hala, errealismo morala, bi moralen koexistentzia eta, azkenik, moral autonomoa lorpen-urrats bezala helbide irristakorretatik pasatzen dira. Eta hori guztia aski ez bada, haurra gure gizarte konposatuan bizi denean, komunikazio interkulturala praktikatu eta, ondorioz, ezagutza akomodatiboa garatu beharrean aurkituko da.

## **2. Lekuan lekukoaren emaitzak**

Gure gizartean haurren norabidea nora ari den ezagutu nahirik, bake eta gerra irudiak nolakoak dituzten jakitea egoki izan zitekeela pentsaturik, test kualitatibo bat pasatu diegu Euskal Autonomia Erkidegoan ikasten duten 6tik 14 urte arteko 225 haurri, 1999ko abenduan eta 2000ko urtarrilean. Banakako elkarrizketa erdiegituratuak erabiliaz bete dugu. Galdezkatutakoen kopuruan sartu direnak hautatzekoan kontuan izan ditugu hizkuntzak, hezkuntza-sareak (publikoa, pribatua, ikastolak) eta irakaskuntza-ereduak (A, B, eta D).

Gidoiak hemezortzi galdera zituen. Haurrekiko lan hori betetzeko baimena eskatu izan delarik, zenbait ikastetxe pribatu eta erlijiosok, beren zuzendariaren bitartez, ezezko biribila eman zuen. Era berean, ikastola baten kasuan, zuzendariak hamar haur bakarrik prestatu zituen elkarrizketatzeko eta, gainera, bi galdera egitea debekatu zuen: bata, bakea eta gerra harreman itzazu Euskal Herriarekin;

eta bestea, bakea eta gerra harreman itzazu Espainiarekin galderak, hain zuzen. Sare publikoko beste zuzendari batek lau galdera zentsuratu zituen. Aurrez aipatu ditugun bi galdera horiek berak, eta, ondoren transkribatuko ditudan beste bi hauek: hirugarrena, bada, bakea eta gerra harreman itzazu eskolarekin; laugarrena, bakea eta gerra harreman itzazu alderdi politiko eta sindikatuekin.

## **2.1. Emaitzen kategorizazioa eta deskripzio analitikoak**

Haurrak adinaren, hezkuntza-sareen eta irakaskuntza-ereduen arabera sailkatuko ditugu, ustez eta horrela egiteak datuen irakurketen aniztasuna baimenduko duela. Izan ere, ikuspegi desberdinetatik eta konbinazio diferenteak gauzatuaz interpretatu daitezkeen datuak baitira ematera gatozkizunak.

### *2.1.1. Adina: 6 eta 8 urte arteko haurrak*

#### **Tokia: Eskola publikoa**

#### **Eredua: A**

Haurren % 20k bakeaz eta gerraz entzuterik ez duela agertzen du. Entzun dutenek, non entzun duten galdetzen zaielarik, etxean, eskolan eta telebistan diote, gurasoak, irakasleak eta berri-emaileak izendatzen dituztelarik gai horretaz hitz egin dietenetzat. Bakea existi dadin txarkeria desagertzea omen dela baldintza erakutsi omen diete.

Bakea, hala, maitasunarekin eta laguntasunarekin harremantzen dute, eta gerra, berriz, txarkeriarekin, borrokekin, heriotzekin eta tristurarekin. Honela Anak (7 urte) hau dio: "Guerra es portarse mal y cuando varios se enfadan hacen la paz". Ivanek (6 urte) dio: "Paz: amigos. GUerra: gente llorando". Marrazki baten bidez errepresentatzeko eskatu zaielarik, bakea usoarekin eta elkarri baturiko bi eskuz egin dute, eta gerra, berriz, ezpata eta pistola armekin.

Bakea, gerra eta Euskal Herria harremantzeko eskatu zaienean, % 90ek ez du ezer adierazten jakin. Erantzun dutenek, sinpleki, Euskal Herrian bakea eta gerra daudela esan dute. Honela Mirianek (6 urte) dio: "Paz: cuando no ponen bombas". Espainiarekin harremantzeko eskatu zaienean, proportzio berean erantzun dute. Baina, erantzunean, bakea dagoela aipatu da. Horietariko batek horren aldeko argudioa ere ekarri du: "Madrilen zoo bat dago".

Eskolarekiko harremana egin behar izan dutenean, bake-toki dela haurrak euren artean jolastean; aldiz, gerra-toki dela haurrak liskarretan lerratzen direnean, esan dute. Carlosek dio: "Hay guerra cuando me enfado con mis amigos". Hala ere, gelan borrokatzea eta gerra egitea berdinak ez direla nabarmendu duenik izan da.

Eliza, berriz, orok bakearekin parekatzen du. Koldok (7 urte) dio: "La iglesia quiere paz".

Alderdi eta sindikatuekin bakea eta gerra harremantzen inor ez da ausartu.

Telebistaren gaia atera zaielarik, denek dute hitz egitekorik. Bakearen aldeko omen da, baina, filmeen bidez gerra erakusten omen du.

Gerrako jostailuak aipatu zaielarik, mutilak dira maite dituztela aho batez aitortzen dutenak. Neska gehienek ez dituztela gustuko diote. Honela Rosak (7 urte) dio: “No me gustan porque son feos y malos”. Bakezko jostailuak izendatzekoan panpinak, anbulantziak eta ospitaleak dira ahotan.

Herrialde baketsu edo gerrarik baden galdetu zaienean, baietz diote, salbuespen bat delarik dioena, herri guziak direla gerrariak.

### **Eredua: B**

Bakea eta gerra telebistaren bidez ezagutzen dutela nabarmentzen da. Berri-emaileak eta aktoreak horretaz ari omen dira. Bakea positibo den guziarekin harremantzen da, aldiz gerra negatibo den ororekin. Azpimaragarria da, hala ere, bakea eta gerra ez hiltzera ala hiltzera mugatzen dutenen iritzia. Gerra egiten dutenak txarrak omen dira, bakea nahi dutenak, berriz, onak. Iñakik (7 urte) dio: “Bakea, onak direlako; eta gerra, txarrak direlako”.

Bakea eta gerra Euskal Herriarekin harremantzeko orduan ehuneko hamarrek Euskal Herria gerrarekin lotu du, argudiatuz ETA dagoela eta hori gaiztoen aldea dela. Espainiarekin harremantzean gehiengoak dio “ez dakit”, baina, besteek diote bakea dagoela.

Elizarekin harremantzean Mirenek (7 urte) dioena da nagusi: “Eleizan mundu guztia ona da”.

Alderdi eta sindikatoei buruz ez dute erantzunik ematen.

Jostailu baketsuak izendatzekoan pelutxeak, panpinak, eraikuntzak eta motoak izendatu dira.

Herri baketsuak bakean bizi direla; aldiz herri gerrariek hildakoak dituztela esan zaigu.

Alejandrak (8 urte) dio: “Herri baketsuetan, guztiak ondo eramaten dira, pozik bizi dira, eta herri gerrrietan, jendea hiltzen da eta gose asko pasatzen dute”.

### **Tokia: Eskola Pribatua**

#### **Eredua: A**

Etxean, eskolan eta telebistan ikasi dute bakea eta gerra badirela Honela Albak (7 urte) dio: “En el colegio. Las monjas. Nos dicen que hay mucha gente que hace daño, y hay que hacer cosas buenas para que haya paz en el mundo”. Bereziki telebistaren eragina azpimarratzekoa da. Bertan ikasi omen dute gaiztoek gerra nahi dutela eta onek bakea. Gerra liskarrarekin asoziatu dutenean, bakea, berriz, zorionarekin egin dute. Martak dio “Paz: la gente es buena y se llevan bien. Guerra: hay personas que hacen daño a otras”. Marraztean, bakearentzat usoak eta aurpegi irribarretsuak dira nagusi. Gerrarentzat, berriz, jende armatuak.

Euskal Herriarekin harremantzean bakea eta gerra, aipagarri da norbaitzuek gerrarekin lotu izana, argudiotuz bonbak lehertzen direla. Honela Franek (8 urte dio): “Aquí hay mucha guerra. Hay gente que pone bombas y mata”.

Espainiarekin lotura egitean, aburu-bereizketa ageri da: batzuentzat herri baketsua da; besteentzat gerraria da edo eta, aldi berean, baketsua eta gerraria. Honela Davidek dio: "Hay de todo".

Eskola, berriz, beti bakezko toki da, nahiz eta noizbehinka borrokak egon. Aurelio dio: "En la escuela se pelean los niños".

Eliza bakearen sinonimo da. Nagorek (6 urte): "A la iglesia la gente va a rezar".

Alderdi eta sindikatuekin loturarik egiten ez dute jakin.

Telebista gerra eta bakearekin asoziatzen da. Nahiz eta filmetan gerra erakutsi, bakea laudatzen den tokia omen da.

Neskek diote gerra-jostailuak ez omen zaizkiela gogoko kolore ilunak dituztelako.

Herri baketsu eta gerrariak omen daude. Aitor-ek dio: "En los de paz no se pelea y en los de guerra muere gente".

### **Tokia: Ikastola**

#### **Eredua: D**

Ehuneko laurogeita hamarrek etxean, ikastolan, telebistan nola bakeaz hala gerraz solasaldiak entzun omen dituzte. Bereziki, telebistako filmetan gerra-egoerak ikusten dituztela diote. Baina, marrazki bizidunetan, aldiz, bake-egoerak ikusten dituztela.

Irakasleen aipaldiak garrantzi handiko direla, baina, telebistak (teleberri eta filmetan) dakarrena buru dela gai horretaz ohartun izatekoan diote. Bakea "pertsona onena da" eta gerra "txarrena" ere esaten da.

Bakea lehentasunez ontasunarekin lotu dute, gero gerraren absentiarekin. Gerra armekin, liskarrekin eta gaiztotasunarekin. Markelek (8 urte) dio: "Gerran hil behar da edo hilko zaituzte". Marrazkien orduan, ohizko marrazkiez gain, haurrak jolasten eta haur-aurpegiak hegan alde batetik, eta hegazkinak bonbak botatzen bestetik agertu dira.

Euskal Herriarekin lotzeko galdetzean, gehiengoak ez daki zer esan. Bakar batzuek nola bakearekin hala gerrarekin harremanu dute. Eta badira Aitor-ek (8 urte) bezala diotenak: "Bakea dago beti. Euskal Herria eta gerraren artean ez dago erlazioirik, ez dago gerrarik".

Espainiarekin lotzean berdintsu ageri dira bake eta gerra aipamenak. Davidek (8 urte) esaldi hau idatzi du: "Gerrarekin oso brutoak dira, ez dakite bakea egiten".

Eskola bake tokitzat aipatzen da, nahiz euren artean bertan borroka egin. Urkok (7 urte) dio: "Bakea dago eskolan ez dagoelako hilketarik".

Eliza beti bakearen sinbolo bezala deskribatzen da. Maitek (7 urte) dio: "Bakea dago eleizan inoiz ez dagoelako borrokarik eta guztiak daudelako ixilik".

Ehuneko hamarrek bakarrik lotura egiten jakin du alderdi eta sindikatuekin.

Telebistari bi aldeak aurkitzen dizkiote: filmetako irudi bortxadunetan gerrarrena eta marrazki bizidunetan bakearena, alegia. Iñigok (8 urte) dio: "Gerrako pelikulak, gerrari buruzko albisteak eta gerrak ere agertzen dira. Baina, Erregeak, Olentzeko erregaluekin ere agertzen dira. Bakezko gauzak dira orduan".

Denek gerrako jostailuak ez dituztela maite aitortu dute. Bakezko jostailuen artean, berriz, panpinak, pelutxeak eta puzzleak izendatu dituzte.

Gehiengoa da onartzen herri baketsu eta gerrariak badaudela. Euren arteko diferentzia borroka mediatizatuaren presentzia edo ausentzia litzateke.

### *2.1.2. Adina: 9 eta 11 urte arteko haurrak*

#### **Tokia: Eskola publikoa**

#### **Eredua: A**

Adin honetako haur guzietan ezaguna dute nola bakea hala gerra kontzeptu bezala. Ezagutza horretarako iturri nagusizat etxea, eskola, irratia eta telebista aipatzen dituzte.

Erakasleen errola ezagutza horretan garrantzizkotzat azpimarratzen dute, baina teleberriak eta filmak nagusitzen dira beren diskurtsoaren luzean. Bakeak pertsonen arteko batasuna adieraziko luke; aldiz, gerrak pertsonen arteko borroka lirake. Guillermok (10 urte) dio: "La paz es tener amigos y practicar compañerismo. La guerra es violencia y matar sin razón". Marrazkiz espresatzekoan bakea lazoekin, usoekin eta esku batuekin adierazten da, gerra hainbat arma-motarekin.

Euskal Herria bakearekin eta gerrarekin harremantzekoan, ETArekin aurkako manifestaldien orduan baketsu dela, aldiz ETArekin komandoen erahilketen orduan gerrari bihurtzen dela. Tomasek (11 urte) dio: "Yo relaciono la guerra con Euskal Herria cuando ocurren atentados y mueren personas. La paz la relaciono con las manifestaciones contra los de ETA".

Espainiarekin harremantzean, ehuneko laurogeita hamarrek bakearekin lotzen du, baina, lapurretak eta erahilketak gertatzen direnean, baita gerrarekin ere. Javier-ek (11 urte) dio: "Relaciono la guerra con España cuando un grupo de chavales matan a navajazos a una persona".

Denek aho batez eskola bakearekin parekatzen dute, nahiz eta barrenean gertatzen diren liskarrek eta norberekeriako jokabideak gerraren puntu bat egon daitekeela adierazi. Paul-ek (10 urte) dio: "La paz cuando nos ayudamos en clase. Guerra cuando alguien tira la pelota, pues nos peleamos".

Eliza, berriz, bake-tokia besterik ez litzateke. Jonek (11 urte) dio: "La paz va con la iglesia pues están contra las guerras".

Alderdi eta sindikatuak ez dakite nola harremandu bakearekin eta gerrarekin. Baina, bada, Mirari (11 urte) bezala ideiak garbi duenik: "Relaciono paz con los partidos políticos cuando no discuten y se unen para una causa común, que son muy pocas veces. Guerra, cuando discuten y no se ponen de acuerdo".

Telebista bikoitza agertzen zaie emankizunen arabera.

Gerra-jostailuak ez dituztela maite diote, baina ez dakite bake-jostailurik izendatzen.

Herri bakezale eta gerrariak ba omen dira. Gerran daudenak gerrariak direlako eta bakean daudenak bakezale direlako omen da.

### **Eredua: B**

Praktikoki denek ezagutzen dute bakea eta gerra kontzeptuen adierazpen hurbila. Areagoko ezagutza eskatzen zaienean galdu daitezke hala ere. Etxea, eskola, lagunartea, eta bereziki telebista izan dira kontzeptuaren formakeran informazio iturri. Bakea definitzeko eskatzean lasaitasuna edo trankilitatea da gehien aipatzen; aldiz, gerra definitzekoan borroka datorkie hitzera. Patxik (11 urte) dio: "Gerra borroka da eta bakea lasai egotea".

Marrazkitzekoan, bakea errepresentatzeko pertsonak elkarri eskua ematen da gehienbat erabiltzen duten sinboloa, gerrarentzat berriz tankeak, helikopteroak eta bonbak dira.

Euskal Herriarekin bakea eta gerra harremantzean zailtasunak ageri dituzte. Ekaitzek (11 urte) dio: "Orain ETA bezalako talde bat dago Euskal Herriaren askatasuna eskatzeko".

Espainiarekin bakea eta gerra harremandu orduan zailtasunak dituzte ere. Enekok (11 urte) dio: "Franco zegoenean Espainian gerra zebilen eta orain hil eta gero dena nahiko lasai dago".

Eleizarekin harremantzean bakea eta gerra ez dute dudarik. Jesus Marik (10 urte) dio: "La iglesia hace la paz porque ayuda a la gente y la guerra al infierno".

Eskolarekin harremantzea denean eginkizuna lelo jakina da gehienetan. Carlosek (10 urte) dio: "Guerra, cuando nos peleamos".

Telebista bikoitzasunez ikusten dute bakea eta gerra haren bidez definitu behar direnean. Pacok (10 urte) dio: "Los programas infantiles, paz. Los telediaros, la guerra".

Alderdi politiko eta sindikatuarekin bakea eta gerra lotzerakoan ikuspegi iluna dute. Bakarnek (11 urte) dio: "Politiko eta sindikalariek bakea edo gerra egiten dute nahi dutelarik".

Gerra jostailuak maite dituztela ala ez dituztela aitortzean erdizkatzen dira. Dariok (10 urte): "Los juguetes de guerra si, pero no hacerlo de verdad". Bakezko jostailuen artean mahain jolasak, puzzleak eta ordenadore jokuak ere aipatzen dira.

Lurralde baketsuak eta gerrariak badirela da iritzi nagusia.

## **Tokia: Eskola pribatua**

### **Eredua: A**

Etxean, eskolan, irrati-telebistan bakeaz eta gerraz hitz egiten entzuna omen dute. Aipatu toki horietan esaten omen da gizateriak gerrarik ez duela behar.

Bakea jendea elkartasunean dagoenean, aldiz gerra lurraldea lortzeko borroketan omen dago. Iñakik (10 urte) dio: "Paz es convivir y compartir con los demás. Guerra invadir lo ajeno".

Marraskien bidez adieraztean bakea eta gerra, usoak alde batetik eta armak bestetik nagusi dira.

Euskal Herria ETakoek egindako erahilketa eta desagertzeengatik gerra-adierazle omen da. Aldiz ETaren aurkako manifestaldiengatik bake-adierazle. Borjak (10 urte) Adierazpen ez ohiko batez definitzen du egoera: "En Euskal Herria la gente usa pistolas para matar a la gente, la gente llora y no quieren la paz sino la guerra".

Espainia herri baketsutzat daukate, besteak beste, hirugarren munduari bertatik doazen Gobernuz kanpoko erakundeek ematen dioten laguntza dela eta. Baina, erahilketak eta lapurretak daudenean, gerra-toki ere badela. Irenek (11 urte) dio: "En España no hay tanta guerra como en Euskal Herria, hay paz porque tiene ONG actuando".

Eskola bake-toki dela bertan irakasten denagatik, baina gerra-toki haurren artean dauden liskarregatik.

Eliza bake-toki absolutu bezala ikusten da, Jainkoan sinistu eta mundu bake-tsua eraikitzea eginkizun bakartzat baititu. Antoniok (11 urte) dio: "Hace la guerra a los pecados".

Alderdi eta sindikatuak bakearekin bezala gerrarekin ere harremantzen dituzte, lehenarekin ongi izatea atzementegatik bigarrenarekin euren arteko borrokengatik.

Telebista bikoitza agertzen zaie: bakezale kristau-erakaspenak zabaltzean, gerrazale bortxazko filmak pasatzean.

Gerra-jostailuak ez zaizkiela gustuko diote, horiek ezagun egiten zaizkionean jendea hiltzera igaro litekeelako.

Herri baketsu eta gerrariak, bietarikoak, daudela esaten zaigu.

## **Tokia: Ikastola**

### **Eredua: D**

Etxean, ikastolan, irrati-telebistan, karriketan eta zineman entzun omen dituzte mundu mailako bakearen aldeko eta gerraren aurkako diskurtsoak.

Bakea lasaitasunarekin, harmoniarekin, bortxa gabeziarekin parekatzen da. Gerra berriz aburu politiko desberdinetako jendeak elkar onartu ezinean indarra

erabiltzearekin definitu dute. Aimar-ek (10 urte) dio: "Bakea behar dela eta ez gerra, baina, batzutan derrigorrezko da ez daudelako ados".

Marrazkitzean, bakea jolasekin, zorionarekin eta eguraldi onarekin agertu dute; gerra, berriz, armekin eta belaunikatutako pertsonen irudiekin.

Denek Euskal Herria gerran dagoela aitortu dute. Eta gerra dagoenean bakea ezinezkoa dela adierazi. Mikelek (10 urte) dio: "Gerra Frankorengatik dago, lehen konkistatu nahi zuen Euskadi bere menpean jartzeko eta terreno gehiago eukitzeko".

Espainia ez dute lotu bakearekin edo gerrarekin.

Eskola bake-tokia da, baina bertan, euren arteko borrokak posible direla azpimarratzen dute.

Eliza, ia haur guztiek, bakearekin parekatzen dute. Baina bada bestelakorik irizten dionik, erahile litzatekeela, alegia, zeren Moisesek Jainkoaren aginduz lagun hurkoa hiltzeko agindua eman omen zuen.

Politikagintzari buruzko sentsibilitate handiagoa ageri da haur hauengan. Alderdi eta sindikatuen egitekoa bakea lortzeko bada ere, euren artean gerra egiten omen dute justizia atzematea ahantzirik. Ibaik (11 urte) dio: "Politikoez diote gerra non egon behar den, negoziatuz zer erosi behar den edo gerra ez egiteko zer egin behar den".

Telebistaren errola bikoitza iruditzen zaie: elkartasun-aipamenak alde batetik, eta bortxari buruzko informazioak bestetik omen daudelako. Gorkak (10 urte) dio: "Batzutan bakea agertzen da telebistan, telebistakoek bakea erakutsi nahi dute, baina ezin dute gerra asko dagoelako".

Gerra-jostailuak ez dituztela maite. Bake-jostailuak definitzean esaten da gerran dauden herrietako haurrek jatekoa lortzeko egin eta saltzen dituztenak direla.

Herri baketsuetan alderdi politikoen arteko konpetentzia apala omen da; aldiz, herri gerrarietan demokraziak ez omen du egonkortasunik.

### *2.1.3. Adina: 12 eta 14 urte arteko haurrak*

#### **Tokia: Eskola publikoa**

#### **Eredua: A**

Adin honetan ehuneko ehunek ezagutzen ditu bake eta gerra kontzeptuak. Beren ingurune osoan aipatzen baitira, etxean bezala eskolan, baina, bereziki mass-medietan duen oihartzuna seinalatzen dute. Politikariak, kazetariak, edo jende arruntak izan, denak aburu-askatasuna jagotearen aldeko dira.

Gerra hitza heriotza eta bortxarekin asoziatzen da, eta bakearena askatasuna, borondate lasiarekin eta zorionarekin. Ibonek (12 urte) dio: "La paz consiste en que no haya violencia. La guerra en que haya violencia y muerte".



Marrazkiz adieraztekoan kontzeptu horien ulermena, uso eta esku elkartuen sinboloekin egiten dute bakearena, eta zauritu edo min egin dezaketen lanabesekin (pistola, ezpata, labana, eta abar) gerrarena. Salbuespena izan bada ere, bakea naturaren irudi eztiarekin adierazi duenik izan da.

Euskal Herriarekin harremantzean, gaur egun bizi den egoerarekiko desosegua eta haserrea agertzen dute eta sektore politikoa arazoarekin arduradun izendatuaz. Gonzalok (12 urte) dio: “Los políticos son la guerra”. Salbuespen gisa bada ere, gutxi batzuek alderdikieran atsegin hartzen dute.

Espainiarekin harremantzean, Euskal Herriak espainol estatuarekin dituen harreman pozoinduak seinatzen dituzte. Imanolek (12 urte) dio: “Guerra entre Aznar y el otro mongolo que no sé quien es”.

Eskolari dagokionez, guziek gune baketsutzat daukate. Eskolan lagun artean gerta daitezkeen liskarrek gerrarekin zerikusirik ez dutela diote. Anabelek (12 urte) dio: “En la escuela hay paz, pero hay chavales que les gusta meterse con la gente”.

Eliza zeharo bake-seaskatzat daukate. Paulok (13 urte) dio: “En la iglesia todo es paz”.

Alderdi eta sindikatuak daukagun egoera arazotsuaren arduradun zuzeneko egiten dituzte, ez baitakite kontsentsuatzan. Santik (12 urte) dio: “Parece que un grupo quiere echar a otro, que se llevan mal. Los sindicatos se dedican a eso”.

Telebistak mundua agertzeko afanean bortxazko gertakizunak erakusten dizkigula nagusiki seinatzen da. Lidiak (13 urte) dio: “Hay muchas películas de violencia y no tantas de paz, tendría que haber más de paz”.

Mutilek diote gerra-jostailuak atsegin dituztela, baina, gustu pertsonala besterik ez dagoela horren giblean azpimarratzen dute. Neskek, berriz, gerra-jostailuak ez dituztela maite erantzun dute.

Bake-jostailu ezagunen artean, panpinak, partxisak eta mahaiko jokoak aipatzen dituzte.

Herri baketsu eta gerrarien diferentzia zenbaitzuek ontzat ematen dute; aldiz, gehiengoak denek gerrari direla dio. Gerrariak, hain zuzen, norberekeria, menpekotasuna, aberasteko boterea dute mira-puntuak. Besteak menperatu eta aberasteko aprobetxatzeko joera pertsonal oro ere gerratzat daukate. Edurne (13 urte) dio: “No hay ningún país que sólo sea pacífico o guerrero”.

## **Eredua: B**

Etiketarik hasi, hezkuntza eta lagunarte-elkarteetatik igaro eta mass-mediatarainoko guzian gaiaz mintzaten entzuten dutela diote.

Tratu txarrak eta heriotzak kondenagarriak direla nabarmentzen dute. Baita ere gerraren bidez ez dela ezer erdiesten. Norbaitek ondoko frase adierazgarri hau egin du: «gerra bidez ez da gerraren kausa den arazoetariko bakar bat ere konpontzen».

Bakea definitzeko orduan, alaitasuna, zoriona, maitasuna, adiskidetasuna eta harmonia aipatu dira; aldiz, gerrarentzat heriotza, gatazkak, liskarrak, bortxa, eta abar.

Marraskiz adierazteko ahaleaginean, bakearentzat, usoak, esku elkartuak, lazoak eta abar egin dituzte; gerrarentzat, aldiz, armak, negar-malkoak, gurutzeak eta abar.

Euskal Herriarekin harremantzean ETAren terrorismoa nabarmentzen da. Aritzek (12 urte) dio: "ETA es la guerra. Euskal Herria es la paz". Hala ere, haurrek jolasten dutelarik zoriontsu direla esaten dute.

Espainiarekin harremantzean, bikoiztasunaz definitzen dute: hirugarren mundua laguntzen duelarik bakearen ereinle ageri bada ere, beste zenbait ekintzetan herri gerrari ere badela diote. Iratxek (13 urte) dio: "Espainian urtero bakearen egun batzuk ospatzen dira. Espainiak Yugoslabiako gerran parte hartu zuen beste herrialde batzuekin".

Eskola ezberrik gabe bakearen gune zaie, nahiz liskarrak izan eskolaren egunerokoan. Haizek (13 urte) dio: "Nire eskolan beti borrokak daude, baina ez dira garrantzitsuak. Bakea dago".

Elizak bakea besterik ez duela erakusten dute.

Alderdi eta sindikatuen galdera ehuneko hogeik ez du erantzun. Hortaz idatzi dutenek gizartearen ongi izatearen bila dabiltzala, baina euren artean sarritan aurkari direla diote. Garbiñek (12 urte) dio: "En los partidos políticos y en la política siempre hay guerra porque hay muchas diferencias y diferentes tipos de personas".

Telebistak, bakea eta gerra zuzenean aipatzen dituenean, bakearen aldea hartzen badu ere, bere programazioan gerra-episodioen gehiegikerian erortzen dela diote.

Gerra-jostailuekin mutil gehienek jostatzea gustuko dute; neskek aldiz ez. Bake-jostailuen artean, panpinak, partxisak eta mahaiko jokoak aipatzen dira.

Baketsu eta gerrari diren herriak badirela eta hori arazoei irtenbidea emateko dauzkaten jokabideen arabera neurtzen dela diote. Garazik (12 urte) dio: "Normalean herrialde baketsuak nahiko sarituak dira eta hor bizi den jendeak nahiko dirua dauka. Herrialde gudazaleak pobreak dira eta hor bizi den jendeak ez dauka bizimodurik".

### **Tokia: Eskola pribatua**

#### **Eredua: A**

Gurasoei, irakasleei beti entzun omen diete bakea atzeman behar dela, eta hori lagunekin eta beste ikasle kideekin portaera baketsuak edukitzetik hasten dela. ETAkideek, aldiz, menia amaitu dela adieraztean, gerrazaleen desafioa egin omen dute.

Bakea definitzekoan, harmonia, errespetua, maitasuna eta batasuna hitzak hautatu dira, aldiz gerrarentzat gaiztotasuna, beldurra, askatasun gabezia. Anak

(12 urte) dio: “La paz consiste en llevarse bien todos con todos y no hacer el mal. La guerra significa ser malo y hacer daño a gente que no solo merece”. Marraztekoan, lehena, usoekin, esku elkartuekin eta bihotz maiteminduekin agertu dute. Bigarrena, armekin, negar-malkoekin eta bihotz zaurituekin.

Euskal Herria baketsua izanik, ETAK gerran murgildu duela diote. Asunek (13 urte) dio: “Yo creo que en Euskal Herria hay guerra aunque solo un bando mate”.

Espainia bakea eta gerra, biak omen da. Espainian euskaldunak gaizki begiratzen omen gaitzute, eta hori gerra-keinua dela diote. José Luisek (12 urte) dio: “En España no nos miran bien”.

Nahiz eta ikasleen artean liskarrak gertatu, eskola toki baketsua omen da.

Erlizjiozko ingurua nahiz eta bakearena izan, erlijioek elkar errespetatzen ez duten bitartean bakerik ez dagoela. Erlizjioek aburu desberdinak onartu behar dituztela ondorioztatu du norbaitek. Pericok (13 urte) dio: “También las iglesias se pegan entre ellas”.

Alderdi eta sindikatuei buruzko galdera askok erantzun gabe utzi dute hezkuntza-sare honetan. Erantzuna eman dutenek kritikoki egin dute, adieraeziaz elkarren aurka jardun besterik ez dakitela egiten.

Telebistaz ikuspegi bikoitza dute. Bada programazio baketsurik, baina aldi berean baita gerraririk ere, bereziki bortxa erakusten duten filmetan.

Mutilen gehiengoak gerra-jostailuak gogoko ditu, eta horietariko gutxi batzuek gerra-jostailuen artean pistolak maite dituztela diote. Nesken gehiengoak eta mutil bakar batzuek gerra-jostailurik ez dutela gogoko adierazten dute, arrazoituaz behin ere ez dutela gustu hori edukitzeko okasiorik izan. Mariak (14 urte) dio: “No me gusta hacer daño ni en juegos”. Bake-jostailutzat partxisa, dominoa, mahaiko jokoak eta panpinak izendatzen dira.

Bakezale eta gerrari diren herriak bereiztea onartzen dute. Lehenak guzien aburuak jasotzen eta errespetatzen dakitenak dira; bigarrenak boterea atzematen omen dute indarra erabiliaz eta besteren aburuak hankapetuaz. Libek (13 urte) dio: “Unos tienen dinero y otros no”.

## **Tokia: Ikastola**

### **Eredua: D**

Nola bakeaz hala gerraz hitz egiten entzun dute, bai etxean gurasoen artean, bai ikastolan irakasleak eta baita ere irrati-telebistan, bereziki teleberrietan.

Bakea laguntasunak, lasaitasunak, askatasunak eta berdintasunak egiten dute; gerra, aldiz, suntsiduraz, arriskuaz, torturaz eta heriotzaz osaturik legoke. Batzuek, gainera, bakea askatasunarekin eta presoentzako itzulerarekin asoziatu dute. Gerrak, bestalde, borrokak eta jendearen gose eta tristurak dakartzala diote. Unaik (13 urte) dio: “Euskal Herrian bakea dagoela uste dut, baina beste aldetik presoak gerturatzea, independentzia eta hainbat gauzagaratik borroka piskat dago Espainiarekin”.

Euskal Herriari dagokionez, batzuen ustez, bakea dago, aldiz beste batzuen aburuan, denek bakea nahi dutenean bake-prozesua lehertu da. Gertaera horren erruduna Aznar dela diote batzuek. Gainera, gerra-egoera ETA eta kale-borroka-rekin asoziatuaz gero, borrokatzen jarraitzea beharrezkotzat jo dute. Harrik (13 urte) dio: “Euskal Herriak borrokatu beharra du merezi duen independentzia lortzeko eta presoak etxeratzeko”.

Gehiengoari Espainia gerran dagoela deritzo Euskal Herriarekiko, nahiz eta bakean ikusi nahiko luketen, Euskal Herriaren bakea Espainiaren esku baitago. Peiok (13 urte) dio: “Espainian ez dute Euskadiko bakerik nahi. Euskadi askatzen badtue bakea izango dute. Urte bete eduki dute eta ez dute ezer egin”.

Ikastolan ez dagoela gerrarik, nahiz eta lagun artean borroketara jolastu eta irakasleekin gerraz hitz egin. Egoitzek (13 urte) dio: “Irakasleak bakea nahi izanagatik guk geurean jarraituko dugu”.

Elizetan nola bakeaz hala gerraz hitz egiten badute ere, abadeek maitasuna eta bakea defenditzen dituzte. Idoiak (12 urte) dio: “Beraiek bakea mundu osorako nahi dute, ez bakarrik Euskal Herrirako”.

Alderdi eta sindikatuekin bakea eta gerra harremantzeko eskatu zaienean, bada erantzun ez duenik. Erantzuten dutenen artean, batzuek uste dute bereziki politikoez gerra bilatzen dutela, aldiz beste batzuen aburuan, bakearen bila dabilta. Maider-ek (13 urte) dio: “Beraiek nahi dutelako gertatzen da guztia, beraz ez daitezela kexatu”.

Telebistan gerrez anitz hitz egiten bada ere, teleberrietan bereziki, Txetxenia lekuko, telebista, oro har, bakearen aldeko agertzen dela. Alaitzek (13 urte) dio: “Komeni zaiena esaten dute”.

Gerra-jostailuak batzuentzat bakarrik dira gustuko. Bake-jostailuak ez dituzte gehiegi maite: panpinak, kanikak, puzzleak eta abar, alegia. Hala ere, kirolak gogoko dituzte.

Herri baketsuak eta gerrariak ba omen daude. Herri baketsuetan jendearen artean ez da borrokarik egoten, poza eta alaitasun jarioko bizitza baizik. Aldiz, herri gerrarietan etengabeko borrokak daude eta gose eta tristura anitz pasatzen omen da.

### **3. Ezagutza teorikoen eta lekuan lekuko emaitzen arteko mihizadura**

Inolako ezbairik gabe euskal haurren gogoen garapenean aldiak nabarmen ageri dira psikologiak gai honetaz erakusten digun lege orokorra beteaz. Bakea eta gerra kontzeptuak piskanaka doaz euskal haurren gogoetan edukiz betetzen eta prozesuetan dibertsifikatzen. Lehen adin-taldeko hurrek, hezkuntza-sare eta irakaskuntza-eredu guzietan, antzeko zailtasunak dituzte bakea eta gerra edukiz betetzen: “ona eta txarra”, “maitasuna eta herra”, “poza eta tristura” beste aipamenik ez dute egin erantzunetan. Areago, ikerketako oinarrizko kontzeptu horiek agente sozialekin harremantzeko eskatu zaienean, gehienetan ez dute ulertu. Hala ere, eskola, telebista eta eliza familiarrago zaizkiela agertu da Euskal Herria, Espainia

eta alderdi-sindikatuak baino. Gainerako guzien gainetik telebista bihurtu dela haur horien (eta adin guzietako haurren) erreferentzi puntu izarra ere esan behar da.

Bigarren adin-taldeko haurren gogoeta-munduan bakea eta gerra kontzeptuen edukiak anitz hornitu dira. Baita agente sozialekiko loturak ere. Bestalde, adin-maila hori intratalde konposatu bakar bezala hartuaz hiru ereduen konparaketa egiten badugu, hezkuntza-sare pribatuko haurren artean kristau erakatsien keinuak ageri dira. Nabarmendu behar dugu D ereduan ari diren haurrek izan dutela zailtasun gutxien galdesorta osoari erantzuteko orduan. Beren erantzunen kultur politika biziagoa, beharbada, daukaten jarrera akomodatiboari zor zaio.

Hirugarren adin-taldeko haurrek bakea eta gerra testuinguru sozialekin eta prozesu politikoekin harremandu dute: demokrazia eta autoritarismoa, lehen mundua eta hirugarren mundua, boterea eta bortxa, askatasuna eta menpekotasuna. Bestalde, lehen eta bigarren adinekoen intrataldea osatzen dutenen arteko konparaketa egitean nabarmendutako eredu-diferentziak orain nabarmenago egin dira. Hala ere, ez dira eredu homogeneoak, geroz eta pertsonalitate gehiago ageri baitute haur bakoitzaren erantzunek. Zeri zor diogun hori? Ez dezagun ahantz pertsonaren kreatibitatea faktore nagusi bat dugula nerabezaroaz gero.

### **Artikuluari aipaturiko autoreak eta obrak**

- Argyle, M., Henderson, M. eta Furnham, A. (1985): "The rules of social relationships", *British Journal of Social Psychology*, 24, 125-139.
- Baldwin, J.M. (1894): *Mental development in the child and the race, methods and processes*, Macmillan, New York.
- Binet, A., eta Simon, Th. (1905): *La mesure du développement de l'intelligence chez les jeunes enfants*, F. Alcan, Paris.
- Blanco, A. (2000): "La polifacética relación entre violencia televisiva y comportamiento agresivo", in Urra, J., Clemente, M., eta Vidal M.A. (2000), *Televisión: impacto en la infancia*, Siglo XX, Madril.
- Bruner, Goodnow, eta Austin (1956): *A study of thinking*, Wiley, New York.
- Bühler, K. (1918): *Die Geistige Entwicklung des Kindes*, G. Fischer, Jena.
- Clément, R., Noël, K.A. (1994): "Langage et communication intergroupe". In Bourhis, R.Y., Leyens, J.P. (eds), *Stéréotype, discrimination et relations intergroupes*, Liège, Mardaga.
- Dunn, J. (1984): "Early social interaction and the development of emotional understanding". In Tjfel, H. (ed), *The Social Dimension* (vol.1), Cambridge University Press, Cambridge.
- Elkind, (1969): "Egocentrism in adolescence". In R.W. Grinder (ed), *Studies in adolescence* (2. arg.), Macmillan, New York.
- Freud, S. (1915): *Drei Abhandlungen zur Sexualtheorie*, F. Deuticke, Leipzig y ien.
- Guimond, S., Palmer, D.L. (1993): "Developmental changes in ingroup favoritism among bilingual and unilingual francophone and anglophone students", *Journal of Applied Social Psychology*, 26, 1985-2013.
- Janet, P. (1926): *Les stades de l'évolution psychologique*, Chahine-Maloine, Paris.
- Montagner, H., eta Kol. (1984): "Development of early peer interaction", In Doise, W., Palmonari, A. (eds), *Social Interaction in Individual Development*, Cambridge University Press, Cambridge.

- Mugny, G., Doise, W. (1978): "Factores sociológicos y psicosociológicos del desarrollo cognitivo: una nueva ilustración experimental", *Anuario de Psicología*, 21, 4-25.
- Paik, H., Comstock, G. (1994): "The effects of television violence on antisocial behavior. A meta-analysis", *Communication Research*, 21, 516-546.
- Piaget, J. (1924): *Le jugement et le raisonnement chez l'enfant*, Delachaux et Niestlé, Neuchâtel-Paris.
- , (1928): "Logique génétique et sociologie", *Revue philosophique de la France et de l'étranger*, 105, (1-2), 168-205.
- , (1931): *Le développement intellectuel chez les jeunes enfants: étude critique*, *Mind*, 40 (158), 137-160.
- , (1950): *Introduction à l'épistémologie génétique*, 3 vol., PUF, Paris.
- , (1977): *Recherches sur l'abstraction réfléchissante, 1ère partie: abstractions des relations logico-mathématiques*, PUF, Paris.
- , (1977): *Recherches sur l'abstraction réfléchissante, 2ème partie: l'abstraction de l'ordre et des relations spatiales*, PUF, Paris.
- Preyer, W. (1882): *Die Seele des Kindes. Beobachtung über die geistige Entwicklung des Menschen in den ersten Lebensjahren*, Grieben, Leipzig.
- Rosch, E. (1978): "Principles of categorization" In Rosch, E. eta Lloyd, B.B. (eds), *Cognition and Categorization*, Hillsdale, Erlbaum, NS.
- Urra, J., Clemente, M., Vidal, M.A. (2000): *Televisión: impacto en la infancia*, Siglo XXI, Madrid.
- Wittgenstein, L. (1987): *Ultimos escritos sobre filosofía de la psicología*, Tecnos, Madrid.